



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

**KONTSEILUA**



TXOSTENA 2025/01/22

# **HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024**



[Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua](#)k 2024an herritarrengandik jasotako kexuak bildu eta argitaratu ditu [Errotuladore gorrian](#). Txosten honetan jasotako kasu horiek eta elkarteak berak salatutakoak biltzen ditugu kronologikoki.

Orotara 21 salaketa baino gehiago jaso ditugu. Erdara hutsezko kartelak, euskara baztertzen duten afixak eta erdaratik euskarara akatsez beterik edo kalitate oso eskasarekin itzultitako testuak izan dira gehien salatu diren kasuak, baina izan dira beste larritasun maila izan dutenak.

Azpimarratzekoa Amurrioko Udalak jasotako salaketa kopurua. Larria izan da Udal Buletinaren kasua. Hasteko eta behin, sare sozialak osoki erdara hutsez izan ditu salaketa publikoa egin den arte. Paperezko edizioan, euskara azaletik desagerrarazi da, gutxienez ale batean, ohikoa izan da euskarazko testuak akatsekin agertzea eta Euskara Planari eta Euskararen Legeari muzin eginez ez da bermatu informazio guztia euskaraz irakurri ahal izatea. Berez, euskararen indizearen azpitik, 12 orrialdetik bi izan dira ohikoan euskaraz. Salaketa publikoaz gain egoera Udalaren Euskara Batzordera eta euskara zinegotziarekin izandako bilerara eraman dugu, egoera egun zuzendu ez delarik, sare sozialen salbuespenarekin, zeintzuk elebidunak izatera pasatu baitiren.

Larria eta euskararen kontrako erasotzat jo dugu baita eskualdeko hedabide bakarrak Amurrioko Udalaren partetik jaso duen tratua: diru-laguntza ukatuz eta biltzeari ere ezetz esanez. Euskarazko hedabideak estrategikoak dira eta babestu beharrekoak eta kasu honetan Amurrioko Udalak kontrako bidea hartu du erabat. Egoerak herritarren haserrea piztu du eta sinadura bilketa baten bidez Udalari egoera zuzentzeko eskatu zaio. Egundako egoera bere horretan dirau.

Ez dira hor geratu Amurrioko Udalari zuzendutako kexuak, izan ere, Euskara Alorreko aurrekontua ere murriztu dute, Eusko Jaurlaritzak aholkatzen dutenetik oso betik geratuz.



Amurrioko Udalaren menpeko Musika Eskolan ere jaso da salaketarik, langile batek bere kontratua euskaraz jasotzeko duen eskubidea urraturik ikusi baitu eta eskaera hainbat foroetara eraman arren (sindikatuordekaria, zentroko idazkaria, fundazioko lehendakari eta Euskara Batzordea) kontratua euskaraz jaso gabe darrai. Horrez gain, kontratua sinatzeko jakinarazpena erdara hutsez jaso zuela ere salatu zuen langileak.

Azpimarratzekoa baita Orozkon antolatutako Antzerki ziklo batean euskara erabat baztertu zela, euskarazko ekintza bakar bat bera ere programatu gabe. Gertaera berez larria den arren are eta larriago UEMA barruan den Udal bati buruz ari garelako. Ekitaldia elkarte batek antolatu arren Udalaren babesari zuten.

Urduñan eta Laudion Udalekuen inguruan azaldu dira kexuak. Urduñako kasuan zerbitzua euskaraz eskaintzen bazen ere, zenbait begiralaren jarreragatik praktikan erdaraz egiten zela jakin genuen. Laudioako kasuan umeei zuzendutako eskaintza bat erdara hutsezkoa zela salatu zuten herritarrek.

Ezin aipatu gabe Udalek duten erantzukizuna diruz-laguntzen dituzten ekimenek eta elkarteek hizkuntza eskubideak bete ditzaten eta euskaldunak bazterrean utzi ez ditzaten. Halaber, askotan errepikatzen den beste kasu bat itzulpen okerra edo eskasena praktika txarretan oinarrituta dago, kontrastatu gabeko itzulpen automatikoen erabilera, orrazketa faltagatik edo zuzentzaile ez egokiak erabiltzeagatik. Hor askotan ezjakintasuna bada, izan ere Udal zenbaitek itzulpen zerbitzua eskaintzen baitute.

Jarraian jasotako kasuak aletzen ditugu:



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



## 24/02/13 VITAL FUNDAZIOAREN HIZKUNTZA ESKOLA Laudio

- Euskara baztertuta errotulazioan eta ikusgarri dagoen informazioan


<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/02/13/errotuladore-gorria-hizkuntza-eskaini-hizkuntza-ukatu/>



## 24/02/13 CAIXA BANK Laudio

- Euskara traketsean egindako iragarkia

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/02/13/errotuladore-gorria-hizkuntza-eskaini-hizkuntza-ukatu/>



info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



24/04/15 HAINBAT Urduña, Orozko, Laudio

Futbol lehiaketa baten inguruan hainbat salaketa:

- Pantaila erraldoia Urduñako plazan: ETB1 bateko emanaldia baztertu eta erdara hutsezkoa proiektatu zen
- Urduñako eta Orozkoko Udalek erdara hutsezko edo euskara baztertzen dituzten kartelak kaleratu zituzten
- Alzarrate Elkarteak gure salaketa publikoaren ostean kartela zuzendu zuen

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/04/15/errotuladore-gorria-futbolean-euskara-bigarren-mailan/>



info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024

## 24/04/23 MUDANZAS FERNAN Aiaraldea

- Itzulpen okerra publizitate esku-orrian

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/04/23/errotuladore-gorria-ganorazko-itzulpen-barik/>



## 24/05/06 BIHOTZA KONPARTSA Urduña

- Bihotza konpartsak sistematikoki euskara baztertzen du bere txosnan, horretarako txosnetako arautegia urratuz
- Salaketa publikoaren ostean Udalak bilera batera deitu zituen konpartsakokideak

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/05/06/bihotza-konpartsak-euskara-baztertzen-du-txosnen-arautegia-urratzean/>



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



24/05/09 HAINBAT Amurrio, Urduña, Aiara

- Jaien testuinguruan hainbat kartel erdara hutsez
- Urduñako Udaleko Euskara arloak neurriak hartu eta zuzenketa lortu zuen

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/05/09/errotuladore-gorria-kartelak-erdara-hutsean/>



info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024



## 24/05/23 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Amurrioko Udalak alde bakarrez eskualdeko hedabide bakarrarekin zuen hitzarmena hausten du eta diru-laguntza ukatzen dio
- Hedabideari bilera eskaera ukatzen dio
- Erabakia komunikatzeko beharrezko bideak ez ditu erabili Udalak
- Salaketa publikoa egiten du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak eta euskara zinegotziarekin biltzen da jarrera aldaketarik erdietsi gabe
- Eskualde mailako kanpaina bat bultzatzen da 1.700 sinadura bilduz. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak bat egiten du
- Egun egoerak bideratu gabe darrai. Amurrioko Udala da eskualdea diru-laguntza ukatzen duen bakarra
- Euskarazko hedabideak estrategikoak dira euskararen normalizazioan, beraz egoera euskararen kontrako erasotzat dugu

<https://aiaraldekoekuskalgintza.eus/2024/05/23/amurrioko-udalak-dirulaguntza-kendu-dio-eskualdeko-euskarazko-hedabide-bakarrari/>

<https://aiaraldekoekuskalgintza.eus/2024/05/23/euskarazko-hedabideen-defentsan/>

<https://aiaraldekoekuskalgintza.eus/2024/06/05/berriak-azalera-ekarri-du-amurrioko-afera/>

<https://aiaraldekoekuskalgintza.eus/2024/06/06/amurrion-euskaraz-bizi-nahi-dugu-manifestua-bultzatu-du-aiaraldea-hedabideak/>

<https://aiaraldekoekuskalgintza.eus/2024/06/17/manifestuarekin-eta-ekainak-21eko-deialdiarekin-bat-egin-du-aiekek/>





AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



24/05/30 OSAKIDETZA, AMURRIOKO UDALA eta EHKS Aiaraldea

- Gaztelera hutsezko kartelak



<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/05/30/errotuladore-gorria-ikustezina-dena-ez-da/>

24/06/07 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Euskara arloko aurrekontua % 8 murriztu zuen Udalak, Eusko Jaurlaritzak aholkatutako % 2tik nabarmen behera, Euskara Plana betetzea ezinezko eginez

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/06/07/jada-nahikoa-ez-ziren-baliabideak-areago-murriztu-ditu-amurrioko-udalak/>

info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024



## 24/06/24 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Informazio guztia euskaraz irakurtzeko aukerarik ematen ez duen kartela

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/06/24/errotuladore-gorria-garrantzitsuena-erdaraz/>



### Amurrio Haxe da

2.043 jarraitzaileak · 3 jarraitzen  
Amurrioko Udal Boletina  
Boletín Municipal de Amurrio



Donación de sangre en Amurrio.  
MES DE JULIO  
LUGAR / HORARIO  
Lunes 8: Centro de Salud



## 24/06/24 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Udal buletinaren sare sozialak erdara hutsez zeudela salatu genuen.
- Egun zuzendu egin dute eta elebidunean daude

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/06/24/udal-buletinaren-facebooka-erdara-hutsez-du-amurriok/>



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



## 24/09/13 UDALEKUAK Laudio, Urduña

- Eskaintza euskaraz izan arren praktikan erdaraz izatea onartezina da eta hala salatu zuten Urduñako zenbait herritarrek
- Laudioko kasuan eskeintza erdaraz zela salatu zen

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/09/13/errotuladore-gorria-udalekuetan-euskara-galtzaile/>

## 24/09/13 PRESTATURIK ELKARTEA Laudio

- Erdara hutsezko kartela

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/09/17/errotuladore-gorria-menperatu/>

**CURSO DE REPARACIÓN DE ORDENADORES**

**GRATUITO**

**ES VALIDO PARA ARRAIGO PARA LA FORMACIÓN**

**PLAZAS LIMITADAS !!!**

DESDE EL 23 DE SEPTIEMBRE HASTA EL 31 DE OCTUBRE

TRES CRUCES KALEA, 12-42  
AGENCIA DE DESARROLLO LOCAL  
LLODIO / LAUDIO

17:30-19:30 DE LUNES A VIERNES

100 HORAS DE FORMACIÓN

**REQUISITOS**

- ✓ Estar en desempleo
- ✓ Dominio del castellano

**¡TE ESPERAMOS!**

Whatsapp 689 87 83 18

945 069 970

prestaturik@gmail.com

ORGANIZA COLABORA

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

LAUDIO UDALA  
AYUNTAMIENTO  
DE LAUDIO

info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024



## 24/09/13 KALE BARRIKO JAIAK Urduña

- Erdara hutsezko kartelak

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/09/26/errotuladore-gorria-hirugarren-mailakoa/>



## 24/10/08 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Udal Buletinaren zenbaki hau azalean erdara hutsez atera zen, 12 orrialdetik bi bakarrik euskaraz eta gainera akatsekin

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/10/08/errotuladore-gorria-gutxi-eta-eskas/>



Amurrioko Udalak euskaraz ikasteko beken 2024 onartu du



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



## 24/10/30 CD LAUDIO Laudio

- Web-guneko euskarazko bertsioa akats larritz josita
- Salaketaren ostean kirol elkarteak denbora baten ostean zuzenketa batzuk egin zituen, hala ere ez da guztiz konpondu

<https://aiaraldekoeuskalgintza.eus/2024/10/30/errotuladore-gorria-norbere-atean-golak-sartzen/>



info@aiaraldekoeuskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024

## 24/12/11 JEZ-EKO LANGILEAK Audio

- Akatsez beteriko kartela

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/11/errotuladore-gorria-ekimen-eder-bat-ozeanoan-galduta/>



## 24/12/18 AMURRIOKO UDALA Amurrio

- Udal Buletinak ez du Euskara Plana eta Euskararen legea betetzen eta lerroburuetan akatsekin dator

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/18/errotuladore-gorria-gramatikak-bost-legeak-bost-euskara-planak/>

2024ko abenduak 15 / amurrio hauxeda

Lanku

### Bertsolari onenak Amurrio

#### Antzokian izango dute hitzordua urtarrilaren 3an

Bertso Jaialdia se celebrará en Amurrio Antzokia el 3 de enero a las 19:00 horas

Urtarrilaren 3an, Amurrioko Bertso Jaialdia izango da Amurrio Antzokian. Bertso jaialdi hau 19:00etan hasiko da. Sarreraren prezioa 8 eurokoa izango da. Aurretiaz salgai jarriko dira online abenduaren 16tik aurrera Amurrio Antzokiko bazkideentzat (6 €), eta abenduaren 17tik aurrera gainerakoentzat (8 €). Kultur Etxean (945891450) ere lor daiteke. Informazio gehiago behar izanez gero, [www.amurrioantzokia.eus](http://www.amurrioantzokia.eus) web orrian kontsulta daiteke.

Maitzen Lujarín, Aitor Mendiburu, Nerea Barandak, Susana Ciria, Jonasa Iturregi, Beñat Gaiztegorri, Aida Martín eta Amets Arizti



AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



## 24/12/18 KULUXKA ETA OROZKOKO UDALA Orozko

- Antzerki programazio oso batean euskarazko ekintza bakar bat bera ere ez

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/18/errotuladore-gorria-non-gauden-jakin-gabe/>

**ZATOZ OROZKORA ETA POTEATU ARTEZ**

Bi egun hauetan, KULUXKA ANTZERKIAk Arte Eszenikoak oso gertu hurbildu nahi dizkizu. Hain gertu, Orozkoko erdigunean sartuko ditugula, baita tabernetan ere.

Ikuskizunen arteko denbora giroko duen KALEGIRAZ gozatu ahal izango duzue. Bertako kide izatera gonbidatzen zaituztegu, dantzazera eta gozatzera...

Antzerki, zirko edota dantza pertsonaiez mozarrotu ahal izango zarete, bururatzen zaizuen edozein. Edo eszenatokiarekin identifikatzen zaizuen osagarriren bat eraman, besterik gabe.

Tabernetako ikuskizunetan barra-zerbitzua geldituko da, horrela artistak gozatu eta errespetatu ahal izango ditugu. Isilik egotea ere eskatzen da.

Ekimen hau zuen gustukoa izatea espero dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu. **Orozko Udalar**i eta lana erraztu diguten **ostalariei** ere.

Eskerrak bereziki ekimenari hain gustu onez heldu dioten **Bertolarien** eskolako taldeari.

**GORA ANTZERKIA!**

**ANTOLATZAILEA**

**KULUXKA antzerkia**

**BABESLEA**

**orozko**

**PARTE-HARTZAILEAK**

OROZKOKO HOSTALARITZA, BERTZOLARI ESKOLA ETA KALEGIRARA GEHITZEN DEN EDOZEIN HERRITARREN PARTE-HARTZAREKIN

**INFORMAZIO GEHIAGO**

**ekuluxkaantzerkia**

kuluxkaantzerkia@gmail.com  
634434751

**KULUXKA ANTZERKIAK AURKEZTUA**

**1. OROZKO ANTZERKI POTEOA**

**2024-KO AZAROAREN 22 ETA 23AN**

## 24/12/19 ASOCIACIÓN MULTICULTURAL Urduña

- Erdara hutsezko kartela

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/19/errotuladore-gorria-euskara-bazterrean-uztita/>

**Fiesta Navideña**

ASOCIACIÓN MULTICULTURAL DE LA CIUDAD DE URDUÑA

**21 DIC.**

**Programación:**

- 1.- Comida navideña de diversas culturas (13.30 Hrs.) Desde 2€
- 2.- Chocolatada Navideña LIBRE (17.00 Hrs.)
- 3.- Hora loca y piñata (18.00 Hrs.)
- 4.- Música

**LUGAR : FORUPLAZA**

**¡No Faltes!**

info@aiaraldekoeskalgintza.eus - 688862949

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETA ETA TRATU TXARRAK AIARALDEAN 2024



## 24/12/19 URDUÑAKO UDALA Urduña

- Umeentzako euskarazko emanaldi batean, artistari gaztelania tartekatzeko eskaera antolatzaileen aldetik

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/19/errotuladore-gorria-ez-al-da-atzera-pausua/>

## 24/12/19 AMURRIOKO MUSIKA ESKOLA Amurrio

- Langile batek bere kontratua euskaraz jasotzeko duen eskubidea urratu zaiola salatzen du, eskaera egin arren kontratua euskaraz jaso gabe darrai egun
- Udalaren menpe dagoen Fundazioaren jakinarazpena erdara hutsez jaso duela salatzen du baita
- Fundazioko presidenteari eta euskara zinegotziari egoeraren berri eman zitzaien, salaketa publiko egitearekin batera
- Egoera ez da zuzendu

<https://aiaraldekoeskalgintza.eus/2024/12/19/errotuladore-gorria-udal-langileen-kontratuak-erdara-hutsean/>





AIARALDEKO EUSKALGINTZAREN

# KONTSEILUA



*Errotuladore Gorria.* Euskaldunok gure hizkuntza eskubideak urratuta ikusten ditugunean, euskara baztertua denean, hizkuntzak tratu txarra jasotzen duenean,... ez geratu kexan, amorruan edo ezinean, bidalguzue argazki bat edo eta egoeraren azalpena, guk atal honetan publiko egingo dugu.

**Emaila:** [info@aiaraldekoeuskalgintza.eus](mailto:info@aiaraldekoeuskalgintza.eus)

**whats-app/tlf:** 688 86 29 49